

PAKO ARISTI



IN

DEPEN

DENTZIA

REN

PAPERAK

INDEPENDENTZIAREN PAPERAK

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2012ko irailean

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2012

ISBN: 978-84-9746-778-0

L. G.: SS-1376/2012

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

INDEPENDENTZIAREN PAPERAK

Pako Aristi



Liburu bat idaztea prozesu luzea da, eta hor pertsona askok hartzen dute parte, zuzenean edo zeharka, nahita ala uste gabe, idazleak denen eraginak jasotzen baititu bere baitan. Nire esker onak guztiei:

Xabier Insausti, Jose Maria Unzueta, Joseba Asiron,
Jose Anjel Irigarai, Maite Artola,
Xabier Irujo, Joseba Ariznabarreta, Iosu Lizarralde,
Marigorri, Inma Noble,
Koldo Etxabe zaharra, Benito Lertxundi,
Aitor Arruti, 'Laratz' tabernako Marian eta Olatz,
nire gurasoak, nire dokumentalista pribatua...

Eta, bereziki, Urrestillako herriari, hark ere independentea izan nahi duelako.

Liburu honetan kontatzen diren gauzak 2012an gertatu dira,

eta 2011n,
eta 1936an,
eta 1200ean,
eta 1978an,
eta 1512an,
eta 1940an,
eta 1841ean,
eta 1962an,
eta 1620an,
eta 1839an,
eta 1998an,
eta 778an...

Aspaldikoa baita euskaldunon artean independentziaren nahia, alegia, gure lurraldea zein den zehaztu eta gizar-tea guk nahi dugun moduan antolatzeko borondatea, gaur eguneraino iritsi dena.

HASERREAREN AURKA

‘Zertan ari haiz?’

Aspaldi ez nuen ikusi lagunmin hura, baina banekien galdera benetakoa zela, eta ez denbora pasakoa, sarritan denok bota ohi ditugun beste itaun batzuen antzera, erantzuna entzuteko arretarik ere jartzen ez dugula.

‘Zertan ari naizen? Ba...’

Lana amaitzear harrapatu ninduen, eta askotan idazleari, bere lana errealitatea definitzea den arren, ez zaio erraza gertatzen bere lana hitz gutxitan zehaztea. Saiakera bat egin nuela esan nion, saiakera politiko bat, baina estilo periodistikoa erabiliz, arina, inor ez aspertzeko asmotan, baina sakona izateko ahaleginean; arina, azalekoa izan gabe. Hori posible baldin bada, behintzat.

Independentziaren ideia gai hartuta, gauden egoe-rara nola iritsi garen esplikatu nahi nuela, bai eta, nire ustez, egun garrantzitsuak diren klabe batzuek paperean jarri.

Errepasoa egin, eta gogoetak planteatu.

Kritikak plazaratu, baina ekarpenak mahairatu.

‘Osotasunaren kontzientzia’, mendeetan luzatu den planifikazio bikain batekin ostu digutena, iratzarri nahi nuela. Iratzarri, erein, loratu eta estrategia bihurtu.

Independentziaren ideiak ez duela, aldarrikapen puntualak at utzirik, hats luzeko ikerketa, gogoeta edo gor-puzte teoriko sendorik izan gure artean.

Independentzia, oraindik, euskaldunen artean esnatzeko dagoen desio lokartua dela, eta esnatzen denean, lorpena ekarriko lukeen diseinurik gabeko jaioberria litzatekeela.

Burua mugitu zuen goiti-beheti, ilusioa ere iragartzen zuen begirada interesatuaz.

‘Zortea opa diat’, erantzun zuen, ‘izan ere, euskaldunok ez zekiagu politikaz hitz egiten haserretu gabe’.

Zer pentsatua eman zidan.

‘Aro berri batera zabaltzen ari den egoera honetan –erantzun nion– uste diat ikasiko dugula horretan ere’.

‘Hala espero!’

Nola hitz egin politikaz denak haserretu gabe?

Oraindik ikasteko daukagun asignatura baten aurrean gaude euskaldunok politikaz hitz egitea egokitzen zaigunean.

Gure haserrea da politikaren porrotik handiena gure lurrian.

Gure haserrea da etsaiaren garaipenik handiena bere historian.

Gure eztabaidarako ezintasuna etsaiaren estrategiaren zati garrantzitsua baita.

Kritika eraikitzaileak egiten ikasi beharra daukagu, behingoz gure ezintasun politikoa desblokeatzeko. Hori ikastea da, niretzat, liburu honen asmoa. Aldiz, testu honekin norbait haserretuko balitz, porrot izugarria litzateke niretzat. Pena hartuko nuke, handia gainera.

Politika energia sozialen kudeaketa da, eta gu geure artean haserretzen garenean etsaia lasaitu egiten da, guk energia geure aurka, herrikide edota alderdikideen aurka jaurtitzen baitugu, gure indarrak etsaiaren aurka metatu, antolatu eta bideratu beharrean.

Politikaren funtsa oso gauza sinplea da: arerioari eginaraztea zuri komeni zaizuna. Lehenengo, noski, arerioa

zehaztu behar da, detektatu eta ezagutu, diagnostiko zorrotz baten bidez, eta horrek boterearekin dauka zerikusia. Nork du boterea, nork ez du. Zer da boterea, eta zer ez. Hor nahasten gara, sena galdu duen animalia bat bezala.

Lubakietan antolatutako barne politika batetik gatoz, inoiz kontsentsurik ezagutu ez duen herri politikoki triste baten ordezkari eta partaide gara, fragmentazioari eta zaktiketari aurre egiteko pedagogiaz umezurtzak.

Demokrazia estatu batek antolatzen duen botere jokalekua da. Euskal Herrian ez dugu botere propiorik, ez dugu euskal demokraziarik ezagutu oraindino; demokrazia espainolaren eta frantsesaren baitan gaude. Botere gunea haietan dago, eta gurea azpi-sistema bat da, subsidiarioa, dependentea, Espainiak eta Frantziak emana, haiek zaindua eta guk onartua. Gaur egun hauteskunderen bidez ematen zaio estatu bati zu dominatzeko baimena, hauteskunderiek zilegiztatzen dute estatu horren izaera demokratikoa munduaren aurrean. Ez dago libre izateko aukerarik demokrazia propio batean jokatu ezean. Eta Espainiakoa ez da gure demokrazia, haiena baizik.

Estatu propiorik ez daukan herrian ez da ematen botere borrokarik, banaketaren borroka bat baizik, kudeaketaren portzentaia baten gaineko jokoa. Hau ulertzen ez bada, eta ulermen honetan finkaturiko estrategia bat antolatzen ez bada, ez gara erabat lubakietatik aterako, hau garbi ez edukitzeak ondorio tamalgarriak baitakarzkigu: begirada jokaleku esparrutik jaso ordeztu, gureak ez diren estatu bik jarri dizkiguten mugen barruan konformatzea, eta estatu horiek banatzen duten diru eta erabaki-ahalmen mugatuaren borrokan murgiltzea.

Menderatua izan den herriaren ezaugarria izaten da zatiketa politikoa.

Zatiketa itsutasunak dakar. Itsutasuna hezkuntza politiko baten faltak dakar.

Eta hezkuntza politikoa da herri batek menderatzai-
learen aurrean bere burua antolatzeko behar duen oina-
rria. Haserretzen garen bitartean inoiz ez dugu oinarri hori
erdietsiko.

Azken gertaeren harira gure arteko begiradak samur-
tzen hasi dira. Orain gure belarrien txanda da samurtasu-
naren bidean.

Entzuten dugun guztia sailkatzeko ohitura dugu gi-
zakiok, etiketa bat erantsiz. Orain arte iritzi politiko ez-
berdinei 'eraso' etiketa jartzen genien. Iritzi berekoa ez zen
oro nire aurka zegoen. Eztabaiden helburua gure iritzia ez
aldatzea baitzen. Harri koskorrak izatea. Irmo eta gotor
irautea hobesten zuen lubaki-aroak. Hori baloratzen eta
saritzen zen mugimendu politikoetan. Baina egurasten ari
da politikaren euskal eremua.

Etiketaren hitza aldatu behar dugu: 'Eraso' jartzen
zuen lekuan 'Aportazio' idatz dezagun. 'Ekarpena'. 'Eraso'
hitza gure burmuinean errepikatzen den aldioro sutan jar-
tzen gara, defentsiban. 'Aportazioa' entzutea erlaxagarria
da, ez dator inor zure aurka, eta ez duzu erabaki beharrik
ere zure aurkakoa edo aldekoa den. Zerbait eskaintzera
dator. Agian zure uste batzuk berretsiko ditu; agian za-
lantzan jarriko.

Entzun ditzagun 'aportazioak'.

Egin ditzagun. Aireratu. Jar ditzagun zirkulazioan.

Ekarpenak zerbait dakar beti; han eta hemen ikertuz
norbaitek dohainik eskaintzen duen altxorra da. Gustuko

baduzu aprobetxa dezakezu; hala ez bada, utzi joaten, agian beste batentzat interesgarri suerta liteke. Ekarpena dakarrenak egin du bere lana. Orain gizarteak erantzungo dio, ekarpenok bereraturaz, ala baztertuz. Zuk ez dituzu indarrak haren aurka jotzen xahutuko, eta benetako bataila politiko handietarako gordeko dituzu, etsai nagusiaren aurka egiteko.

Ez zait interesatzen arrazoiaren jabegoa nork duen, baizik eta herri honi irteera emango dioten arrazoiaren metaketa.

Bakoitzak pentsatzen duena esan egin behar du, iritzi ezberdinak dauzkatenak errespetatuz, haiei ere bere hitz propien balorea aitortuz eta haiengan arreta jarriz. Neu ere poliki-poliki ari naiz hori ikasten. Barrutik sortzen den estrainako sentimendu biszeralari gogoetaren galbahea ezartzea baita jakinduriara daraman bide segurua bakarra.

Ezinikusiak estatu eta guzti osatua dagoen herri normal batean ematen den politika konbentzionalaren ajeak dira; baina sistema politiko propiorik ez daukan gurea bezalako herri batentzat hilobi segurua dira politikoen arteko ezinikusiak, biztanleon arteko arrakala emotiboak, gai beretsuekin kezkatuak gaudenon muturkeriak. Politika konbentzionala soilik herrialde konbentzional batean egin liteke; arazo nazionala dagoen lekuan ez da posible. Eta, sarritan, politika konbentzionalaren aldarria erabiltzen da arazo nazionala ezkutatzeko eta desaktibatuzeko.

Badakit ez dela komenigarria, ezta estetikoa ere, eztabaida politikoak pertsonalizatzea, jarrera bakoitza agertzen duten bozeramaileak egitasmo eta ideologia kolektibo baten ahots baino ez direlako. Baina analisiak hitz zehatzen inguruan burutzen ditut, eta hitz horiek pertsona zehatzek esan

dituzte une batean. Mezuak kritikatu arren, ez dut ezer mezularien aurka; ideologikoa da, eta ez pertsonala, nire adostasuna ala bere eza, ez da nire asmoa inor suntsitzea, sumintzea, inoren bizkarrean irri egitea, iritziak eta jarre-rak kuestionatzea baizik, gauzak beste modu batean egin litezkeela proposatzea. Ongi adierazten asmatzen ez badut, barkamena eskatzen dut orri hauetatik.

Politiko eta pentsalari askoren iritziak jaso ditut, baina lekuaren mugak agintzen du: zati tikiak agertzen ditut al-dioro. Badakit testuingurutik ateratzeak bere arriskua duela, baina saiatu naiz, pasarte bakoitzean, orokorki zertaz ari ziren esplikatzeko, hobeto uler dadin esaldion zentzua eta intentzioa.

Garako editorial batzuk ere erabili ditut, beste egun-karietakoak ez bezala, kritikari atak irekitzeko daukaten intentsitateagatik, ez beste ezergatik. Kritikak kritika, aitortu behar dut *Garak* egiten duen lan periodistiko bikaina, informazio ezberdina eskainiz gai askoren inguruan, bereziki Euskal Herrian ematen diren eskubide urraketa ugari eta mingarrien esparruan.

Jendea iraindua eta mindua sentiaraztea ez da estrategia ona; nire lanaren emaitza txarra litzateke, nire ahalmen komunikatiboaren porrota, etsaiak beti nahi baitu guk gure artean etsai gehiago ikustea eta sortzea, horrela berari aurre egiteko gure indarrak apalduko direlakoan.

Halere, gauzak esan beharra dagoela sentitzen dut, eta horretan saiatzea dela nire ardura.

Nozitzen dugun fragmentazio politiko-kulturalaren kumea naiz neu ere; hargatik, nire analisisia Hego Euskal Herrira mugatuko da, Iparraldeko egunkariak ez baitituz irakurtzen, ez eta sobera ezagutzen bertako egoera politiko

zehatza. Mende askotako bi inperioen politika zatitzaileak komunikazioa zaildu du lur bereko kideen artean, elkar ez ezagutzeraino. Memorian behialako batasun soziopolitikoaren aztarna izpirik ez dugun martzianoak gara euskaldunak euskaldunontzat.

ESKUETAN IZAN GENUENA

1978an hamabost urte neuzkan eta beste gauza batzuk izango nituen gogoan, baina, hainbat iturri ezberdinetatik jaso dudanez, orduan izan genuen independentzia lortzeko aukera borobil bat.

Joseba Ariznabarretak, funtsezko ildoak laburtuz, hau kontatu zuen hitzaldi batean:

Guk, 1978an, indar izugarri bat izan genuen. Gidari-tza politiko inteligente bat izan bagenu, gaur independent-teak ginateke. Francok problema bat izan zuen: ekonomia aldaketak zekarzkien Europar Batasunak, merkatu batera-tua beharrezkoa zen, eta Espainia krisi ekonomiko izugarri batean erdian zegoen, irten ezinik. Espainiak merkatu za-balago bat behar zuen, atzerriko inbertsioa behar zuen. Eta hori Merkatu Komunean soilik zen posible.

Horren parte izateko label demokratiko bat eskatzen zio-ten, nahiz eta formulazio hutsa izan. Guk gure esku izan ge-nuen, garai hartan, Espainiak ez lortu ahal izatea label hori. Horretarako nahikoa izango zen hauteskundeetan hondar-tzara joatea. Hemen posible izango zen abstentzio izugarri bat lortzea, %90eko abstentzioa, gutxienez.

Batzuek diote: Bai, baina orduan 'brunetea' bidaliko zigtuten. Ez zituzten bidali behar; hemen zeuden, eta hemen jarraitzen dute. Sufritu egingo genuen. Ziurrenik militarrek boterea hartuko zuten berriro. Baina zenbat denbora iraungo zuten? Ekonomiak behartuko zuen egoera berriro aldatzera, eta guk posizio berbera mantendua izango genuen. Begira, Errusiak Espainiak baino armada askoz ere handiagoa zuen, baina Lituaniak eta beste herri askok askatasuna lortu zuten.

Kostu sozial gutxirekin lortuko genuen independentzia orduan. Gaur egun askoz ere koste sozial handiagoa ordaindu beharko dugu. Espainiako sistema honek zilegitasun handia lortu du, eta neurri handi batean geuk eman diogu zilegitasun hori.

Eta irudi ezin tristeagoa deskribatu zuen: euskaldunak, hiri handi nahiz herri txiki guztietan, igandetako jantzirik dotorenak soinean, botoa ematen guardia zibilek zaindutako hauteslekuetan. Geure borondatez zilegitasuna ematen okupatzailearen eskaintza politikoari; menpekotasuna geure borondatez sinatzen.

Alderaketak beti tentuz hartu behar dira, zirkunstantzia eta interes ezberdin askok inguratzen dituztelako nazioen errealitate politikoak. Lituania eta SESB (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna) osatzen zuten osteruntzeko herrialdeek europar eta amerikar inperialisten laguntza jaso zuten, hauek Sobiet Batasuna deusezteko zeukaten interesagatik. Independentzia beti ematen da, herri bateko biztanleen borroka eta abilezia politikoaz landa, herri horren inguruan dauden era bateko edo beste teko interes garrantzitsuen arabera.

Herri honetako gidaritzza politikoaren huts egitea maiz agertzen den gaia da. Kepa Anabitartek hau zioen *Garako* elkarrizketa batean:

Gure ahuldadea da oraindik ez dugula demostratu ahalmen politiko bat hemen badaukagula, existitzen dela. (...) Izan dira momentuak erabat alferrik galdu ditugunak, herria bere neurria ematen ari zenean zuzendaritza politikoen gainetik. Adibidez, 70eko hamarkadan, lehen frankismoa likidatzeko aukera galdu genuenean.

Eta puntu suspentsiboetan galtzen den lantua sortzen da haren ahotik hurrena:

Izan bagenu klase politiko bat behar bezalako heziketa-rekin, ausarta eta irmoa bere helburu eta erabakietan...

2012ko maiatzaren 27an argitaraturiko elkarrizketa mamitsu horretan azpimarratzen du herri honek daraman mende askotako zama historikoa zein den: bere oinarri sozialak eskaintzen dituen aukerei egokitutako estrategia bat osatzeko ezintasun politikoa. Eta ondoren aipatzen du beste puntu interesgarri bat 1978ko aukera galdu horri buruz:

Haustura demokratikoa zen bide posible bakarra munduko herrialdeen nazioarteko esparruan gure estatusa finkatzeko. Frankismoak aukera eman orduko, haustura demokratikoak inplizituki zeraman Euskal Gobernuaren berehalako ezarpena. Gero gertatu dena ikusita, modu horretan izugarrizko abantaila hartu izango genuen.

Gidaritza politiko inteligente baten falta, heziketarik gabea, ausardiarik gabea, alferrik galdutako uneak, oraindik demostratu gabe daukagun ahalmen politiko bat... Helburu estrategikoa: independentzia. Kepa Anabitarteren iritziz, herri honek badu aski indar euskaldun gehien-goaren sentimenduetan kokaturik dagoen helburu hori lortzeko, lo dagoela dirudienean ere herri honek erantzun izan du une zehatz batzuetan, behin eta berriz, historian zehar.

Baina ez dugu independentzia lortzen. Zer gertatu da hemen?

BELAUNALDI BAT PIKUTARA

Joseba Ariznabarretak bere 'Euskadi: Aproximación política' liburuan plazaratutako kontakizuna jarraituz, honela geunden Franco hil zen egunean: Espainiak bere garapen ekonomikoa ziurtatzeko Europar Merkatuan sartu beharra zeukan, baina horretarako behar zuen homologazio demokratikoa euskaldunon esku zegoen neurri handi batean.

Aparteko abagunea zen gure erreibindikazio historikoak konplexurik gabe planteatzeko eta exijitzeko. Nazio guztiek izaten dute bere ordua historiaren aurrean, eta hura zen unea behin-behineko euskal gobernu autonomo bat ezartzeko. Zertarako? Euskal Herria subjektu politikoa izan zedin Espainiaren aurrean. Ondorengo edozein negoziatziotan bi aldeetako bat ez bada subjektu politikoa ez dago negoziatorik; ez dago erlazio politikorik. Hori ezean gaur bizi dugun egoera gertatzen da: hitzarmen bat zeina alde batek hauts dezakeen nahi duenean, baina besteak ez.

Herria, masa-mugimendu moduan antolatua, suspertuta zegoen, erne, mobilizapen ahalmen handiarekin, aldaketa eske, gizartea eraldatzeko indar maila kualifikatuen jabe. Oinarri soziala sendo zegoen. Euskal Gobernu probisionalak ezinbesteko baldintza behar zuen negoziazioak hasi aurretik. Irteera-lerroan egon behar zuen. Horrela, herri bat ikusiko zen, kasu honetan lau probintzia, bere etorkizuna Espainiarekin negoziatzen, Jose Antonio Agirrerren estatu itxurako gobernu hartatik zetorkion zilegitasunaz estatu propiorantzako bidean. Garrantzitsua da herri bat egotea, ez alderdi bat herriaren izenean. Herri bat izan liteke subjektu politikoa, alderdi bat nekezago; alderdiak dauden lekuan dualismoa nagusituko da, estrategia nazional eza eta herriak bildutako indarren likidazioa, euren interesetarako ez bada.

Hala gertatu ziren gauzak: alderantziz. Euskal Gobernu helmuga izan zen. Baina lortu zenean ere, erreibindikazio politikoaren maila erabat pobretua eta ahuldua egotearen kausaz, jadanik galduak zituen gobernu horrek bere nortasun ezaugarri guztiak. Espainiako konstituzioak ezarritako erakundeetan erabat integratua geratu zen, sistema politiko espainolaren berme, zaintzaile eta defendatzaile.

Ariznabarretak gogoeta egiten du:

Erabat itsu zeudela ziruditenak PNV eta bere akolitoak ziren. Estatuko indar politikoaren harriduraren aurrean, eta bere jarraitzaileen sineskortasun inozoarekin eta obediencia ignaziotarrarekin etxe-aldaira erraztu zuten adeitasunez inongo enbarazurik eragin gabe. Bere eskubide politikoak dilista plato bat baino gutxiagotatik saldu zituen: aski

zuen amnistia orokor samar batekin, eta ikurriña legeztatzearekin’.

Herri bat bere etorkizuna negoziatzen egon ordez, alderdi politiko bat dago mahaian, herriaren izenean ari dela esanez, baina, higatua eta estrategiatik at, bere onura propioentzako lana eginez. 1978-2012: ia 35 urtez ahaztua geratuko da independentziaren ideia, eta Euskal Herria borroka instituzionalaren eta borroka armatuaren dualismo galgarrian ezabatua.

EZER EZ ESKATU

‘Estatuko indar politikoek harridura’ zer izan zen bada? Liburuan Ariznabarretak egindako hemeroteka lanari esker jakingo dugu:

Zinez, euskal alderdi politikoak deituriko horiek hartu zuten jarrera politikoak goitik behera harritu zituen espainolak, gauza handiagoen beldur baitziren.

Santiago Carrillok bere alderdiarentzat berme konstituzionatzaileak exijitu zituen lehen hauteskunde orokorretan parte hartu aurretik. Komunista zaharrak uste zuen guztiz beharrezkoa zela aurretiko kontzesio politikoren bat euskaldunentzat ere, hauteskunde demokratiko askeen bermea zelako.

Baina Carrillo Espainiako politikagintzan pertsona marjinala eta erabaki gutxikoa izan bazitekeen ere, zalan-tzarik ez dago Jose Maria Areilza bezalako frankista baten

aurrean; euskaldunon aurka zeukan gorroto eta herra antologikoak dira.

Areilzak Bilboko alkatetzarako hauteskundeak galdu zituen 1936an. Indar minoritarioa zen. Baina urtebete geroago biolentzia eta indar militarra erabiliz erdietsi zuen alkatetza, eta konkista odoltsua erreibindikatu zuen boterea lortzeko bide gisan. Berrogei urteren ondoren, hau zioen gizon honek *El País* egunkarian:

Premiazkoa da ez ahaztea planteamendu erregional nagusiek daukaten lehentasuna, baztertu gabe bere egunean konstituzio berriak heldu beharko diola arazoari modu orokor batez Estatuaren egitura berritzeko. Katalunian eta Euskal Herrian beharrezkoa izango da edozelango erabaki politiko bat, errealitateaz han daukaten ikuspegia eta bertsio ofizialaren utopiak erakusten duenaren arteko leizea gehiago sakondu ez dadin. Monarkia demokratikoak eskain ditzake formula ausartak egoera hau eraldatzeko hauteskunde orokorrak baino lehen.

Baina guk ezer ez eskatu. Ezer ez antolatu. Ezer ez existitu. Ez izan estrategia nazionalik une erabakiorra iritsi zenean. Sen politiko oinarrizko bat ere ez.

Ezin.

Edo ez nahi.

Etsaia zerbait (edo zerbait baino gehiago) emateko prest zegoen; abiapuntuan zerbaitekin hasten denak dena eskura dezake helmugan. Ezer gabe hasten denak, ezer gutxi dauka bukaeran. Trantsizioa mugimendu burokratiko bat izan zen, non oposizio espainiarrak onartu zituen

botereek ezarritako baldintza guztiak. Konstituzioaren lehen artikulua idatzita zeuden: monarkia, batasun nazionala Espainiaren lurraldearentzat, hizkuntza espainola derrigorrezko guztientzat, eta armada printzipio guztion jagole. Hortik aurrera nahi zituzten artikulua guztiak egi-tea libre zuten aukeratutako diputatuek.

Zerbait galdu zen gure gizartean Jose Antonio Agirre-ren gobernutik frankismo presentzialik gabeko lehen euskal gobernura bidean. Historia apur bat aztertuta, ez zait gehiegizkoa iruditzen gure klase politikoari bere itsusikera eta itsuskeria leporatzea. Eta itsusikeria diot, Espainiako estatuarekin hain otzana izan zen alderdi hura gero, hemen Jauriaritza lortu zuenean, bere herriko hainbat talde, plataforma, kolektibo eta mugimenduren aurka oldartu zelako, lortu zituen tresna errepresiboak gogor eta zakar erabiliz gizartearen mobilizapen ahalmena errotik ateratzeko, sustrairik gabe uzteko, ezabatzeke.

Jadanik erremediorik ez duten gauzak dira, baina belaunaldi batez nozitu ditugu ondorioak. Orain oso antzeko egoeran gaude berriro, gure historiaren 0 kilometro moduko batean. Baina ez gaude hutsean. Ikasi ote dugu zerbait? 35 urte igaro dira; ezagutu ditugu, ongi ezagutu ere, Espainiako sistema politikoaren mugak, horrek suposatzen duen biolentzia kulturala, linguistikoa, propagandistikoa, judiziala, politikoa, biolentzia erreala batzuetan, birtuala bestetan, etorkizunean bete litezkeen mehatxuen koakzioa.

Kontuan hartuko al dugu hau guztia bide berriari ekiteko orduan?

49 urte ditut orain. Batezbesteko bizi-itxaropena kontuan harturik beste 30 urte geratzen zaizkit munduan. Ez nuke berriro akats berberak errepikatzen direla ikusi nahi,

berriro beste belaunaldi bat alferrik galtzen dugula. Egoista naiz: hil aurretik Euskal Herriaren independentzia ikusi nahi dut.

Jendeari nahita ‘independentzia’ hitza aipatzen diot askotan, eta harritu izan naute sarritan. ‘Independentzia?’, galdetzen dute sineskaitz, ‘zeinena, gurea?’. Eta begietan ikusten diet ‘Lekutan dago!’ adierazi nahi duen keinua. Politikak lortu ahal duen eta jendeak uste duenaren arteko distantzia hau mingarria zait benetan. Ez daukagu zigor biblikorik Espainiaren barruan ‘ad eternum’ egotera kondenatzen gaituenik. Hau sinesten hastea askatzen hastea da.

Horretan oso-oso egoista naiz.

PAREKOTASUNAK

Orain historia errepikatzen ari da berriro, antzeko gauzak ari naiz irakurtzen Espainiako edo Euskal Herriko egunkari espainiarzaleetan. Bat-batean arrotzek, kanpotik begiratuta, uste dute oso prestatuak gaudela estrategia politikoan.

Iñaki Gabilondok, ekainean *El Diario Vascon* egindako elkarrizketa batean, aipatzen du euskal gizartean leize kultural erraldoiak daudela, eta bi modelo hauen existentzia soilik politikaren bidez konpondu litekeela. Hiru aldiz aipatzen du ‘inposatu’ aditza, beti ere euskaldunei leporatua:

- 1. Ni kezkatzen nauena da nola konponduko duen Euskadik bere burua. Joketzen bada gehiengoak edukitzera eta haien ikuspegia besteen gainean inposatzera, oso leku konplikatuetara irits liteke.*

2. *Beldurra ematen dit norbaitek, eman dezagun %56arekin, bere eredia inposatzea, elkartzeguneak bilatu ordez.*

3. *Independentzia iristen bada gehiengo baten inposizio hutsaz erresistentzia handiak egon litezke.*

Baina ondoren zehazten du, ziur aski inkontzienteki, zeinek agintzen duen Euskal Herrian:

Ezker abertzalearen aurrean badago nazionalismo espainol sendo eta serio bat, beti agindu izanaren tradizioa daukana.

Euskaldunok ginen hiru aldiz inposizioaren bekaturdun, baina hara, beti nazionalista espainolek agindu dute! Gauza harrigarriak egiten ei ditugu euskaldunok gauzak inposatzeko dugun maniarekin.

Elkarrizketaren azken parrafoan, ordea, zalantzarik gabe aitortzen du independentziaren ateetan gaudela:

Dena den, errazagoa izango da Euskadi independentea izatea gaur bezala jarraitzea baino. Sinestezinena litzateke hogeitau urte barru Espainiak gaur daukan lurralde egitura bera izatea.

Salvador Sostresen ere idazten zuen *El Mundon* maiztzean:

Euskadi independente batean (berandu baino lehen gertatuko dena) herri bakoitzean bere estatua izango du ETA-kide bakoitzak.

Euskal politikaren betiereko jira-biraren kiribilean, errepikapen eternalera kondenatua dirudien gure praxi politikoan, ezintasun autokonplaziente baten inertzia apur-zerik lortuko ote dugu?

AITORPEN AROA

Era berean independentziaren aldeko aitorten aro bat bizi dugu, haren aldeko adierazpen uholde bat hedabideetako artikulu eta elkarrizketetan.

Andoni Egañak *Berrian*, 2012ko maiatzaren 19an, bezperan argitaratutako Mikel Alberroren iritzia zekarren bere artikulua sabelera. Hona Alberrorena:

(...) Espainiak ekonomikoki ere ito eta estutzen gaitu, murrizketen bidez zapalkuntza ekonomikoa inposatzen digu, eta zama izugarria bihurtu da Hego Euskal Herriko garapen ekonomikorako. Independentziarekin azak jatera kondenatuak ginela esan zuen aspaldian EAJko buruzagi ospetsu batek. Berak ere onartuko luke alderantziz gertatzen zaigula egun: Espainiarekin miseria gorrian biziko garela, hondoratzen ari den ontzi zaharritua baita. Ea euskaldunok itsasontzi eta hondamendi horretatik lehenbailehen ihes egiten dugun'.

Jarraian Egañak aitortzen zuen bere sabeletik:

Esan bezala, azken urteetan bereziki abertzale eta bereziki bereziki zale nabarmendu gabeko askoren ahotsa entzun izan dut han eta hemen 'horiekin ez goaz inora' eta independentzia aldarrikatuz. Bat nator bi egin behar horretan.

Egañaren independentismoa ‘in crescendo’ etorri da hilabeteotan, ideia gero eta garbiago formulatuz. Irailaren 8an ausartago mintzo da *Berrian*:

Inoiz espainiar sentitu ez garenok ere estimutan genituen Errepublika garaiko espainiar askoren eginahalak, frankismoaren aurkako borrokan aritu zirenen ahaleginak, orduko espainiar artista, idazle eta intelektualak... Egungo Espainian, ordea, orobat, ez da ezer erakargarririk.

Bigarrenagoz ere jaurtiko du bere amorru baketsua:

Badakit garena ez garenetik eraikitzea ez dela munduko ideiarik distiratsuen, baina helduleku hautsiari eustea baino hobe da hutsera jauzi egitea.

Eta hirugarrenean errematea:

Asko gara Bernarda Albaren etxean bizi nahi ez dugunak.

2012ko ekainean Mikeltxo Urangak ‘Espektroak’ trilogiaren hirugarren liburua aurkeztu zuen. Hona *Berriak* jaso zituen hitzak:

Euskal Herri independentearen bidea bilatu beharko litzateke zuzenean Europar Batasunean, eta ez Frantziaren edo Espainiaren bitartez. (...) Ezinbestekoa iruditzen zait, bate-tik, independentzia, Frantziatik eta Espainiatik bereiztea; eta, bestetik, European egon behar badugu nahitaez, European proiektu hobe eta alternatibo baten alde lan egitea.

Ekonomiaz ari garelarik, ederra erantzun zuen Alex Wilsonnek, 'SDA' Eskoziako Alderdi Demokratikoaren bozeramaileak *Noticias de Gipuzkoan*, 2012ko ekainaren 25ean:

Galdetuko balidate ea independentea izan nahi dudan, aberatsagoa izanda, baietz esango nuke.

Berdin geratuko bagina ere bai.

Eta galdetuko balidate ea independentea izan nahiko nukeen baina txiroago izanda, baietz esango nuke baita ere, zalantzarik gabe. Ekonomia garrantzitsua da, noski, baina independentzia zerbait gehiago da.

Ederra da, daukan kadentzia poetikoagatik, eta hedatzen duen mezuagatik; ardura historikoaren gorazarre hunkigarria iruditzen zait: gure seme-alabei herentzian egoera politiko hobea uzteko borondate goren. Har ditzagun arazoak gure gainean, izan gaitezen txiroagoak, ez dio axola. Baina utz diezaiegun ondorengo belaunaldiei beren herriaren independentzia; eman diezaiegun askatasuna. Hori izan bedi eurak kudeatuko duten gure herentzia.

Egunkari berean Jon Azua, Euskal Gobernuko Ekonomi Arazoetarako Lehendakariorde izana elkarrizketatu zuten ekainaren 3an, Euskadiren independentzia posible al litzatekeen galdetzeko:

Bai, zergatik ez? Halere, zehaztu behar da zer litzatekeen Euskadi independente bat ikuspuntu ekonomiko batetik.

Munduan eman diren aldaketak deskribatzen ditu, azkenean Euskadiren egitura goraiatzeko.

Gizarteko eskaerak eta arazoak konpontzeko modurik errazena eta eraginkorrena unitate txikiagoak dira. Euskadi moduko batek dituen kontrol sistemak eta mekanismoak beste batzuenak baino askoz hobeak dira. Bere erakunde ereduak eta hainbat kontu partekatzeke moduak kontrol ahalmena hobesten du, eta gauzak non egin diren ongi eta non oker jakitea bideratzen. Hori guztiz garrantzitsua da mesfidantza handia dagoen aroan.

Espainiatik alde egiteko aitorpenak eztanda egiten duten su-festak bilakatu dira hedabide guztietan. Javier Vizcaínok, 2012ko uztailaren 12an *Noticias de Gipuzkoan*:

Vuelvo a preguntar: ¿Cuándo nos vamos?

Egunkari berean, 2012ko abuztuaren 13an Alots Gezuragak idatzi zuen:

(...) Ez zaio baimena eskatu behar inori, eta gutxiago imperialistei (gainera, ondoren erreferendum bat egin nahi bada ere, baldintzak aldebakarrekoak lirateke, eta irabazi egingo dela ziurtatuz gero). (...) Okupaturiko herri batean autodeterminazio eskubidea, edo ariketa, hobeto esanda, independentziaren adierazpen aldebakarrekoa da, eta ez beste ezer.

Xabier Irujo, Manuel Irujo PNVko buruzagi ezagunaren senideak, *Garan*, 2012ko abuztuaren 11n:

Ez naiz espainola eta ez dut izan nahi. Independentzia lortu behar dugu, baina geroari itxoin gabe, orain. Era guztietako arrazoiak ditugu horretarako.

Joseba Permach, Pernando Barrena eta beste profil, ikuspuntu eta ogibide anitzetako jende asko hasi da egunkarietan independentziaz idazten, baina tamalez ezin guztiak orriotara ekarri.

Espainiako ekonomiaren gainbehera salatu zuen Amaiurrek ere. Ordea, hor jadanik agertzen da dikotomia leun baina iraunkor baten xirimiria, azken urtebetean edo ezkerreko politikoen adierazpen asko bustitzen dituen taigabe, aurrerago eta sakonago ikusiko dugun bezala.

2012ko ekainaren 24ko egunkarietan zetorren Amaiurren agerraldia. *Berriako* titularrak zionez, kalkulatu zuten euskal hiritar bakoitzari 1.500 euro kostatuko zaiola Espainiaren erreskatea. Eta datuon aurrean, nola ez, ondorio logikora iritsi zen Rafa Larreina:

Horrek erakusten du Euskal Herriak inoiz baino beharrezkoagoa duela independentzia, Espainiaren gehiegikerien aurrean, kudeaketa zentzuzkoago bat egiteko.

Baina informazioari bukaera emateko, honako parrafo hau kazetariaren eskutik:

Horiek horrela, Madrilgo gobernuari erreskatearen baldintzak zeintzuk izango diren lehenbailehen zehazteko eskatu zioten.

Lehenengo independentzia eskaera; baina ondoren, oraindik Espainiaren baitan beste tenporada luze baterako gauden pentsamendua ageri da informazio gehiagoren eskaera horretan, mezu hau hedatuz jendearen inkontzientean: independentzia nahi dugu, baina hau luzerako doa, oraindik egonaldi handia geratzen zaigu Espainiaren baitan, oraindik puska batean eragin izugarria izango du guregan Espainian gertatzen den orok, eta informaturik egon behar dugu.

Eta oraindik denboraldi luze baterako baldin bagaude Espainian, horrek ez al du esan nahi independentzia lortzeko estrategiarik ez dugula? Alegia, agian benazko borondatea izanik ere, ideia zipitzik ez dugula?

Amaiurren agerraldia *Garan* ere bazetorren, eta hor luzeago jasotzen zen salaketen zerrenda: sekretismoa, iluntasuna eta gezurra osagarri etengabeak izan direla Moncloako agintaldi guztietan, gobernu nazional nahiz autonomikoez lagundu dutela zuloa gero eta beltzago eta sakonago egiten, zergatik gobernuak ez duen Espainiako estatuaren 50 hartzekodun nagusiren daturik ematen... eta bukaeran galdera bat:

Zer izango da hurrengoa?

Nik egunkariekin egunero hitz egiten dut, beste batzuek txakurrarekin edo landareekin bezala, eta galderak erantzutea gustatzen zait.

Zer izango da hurrengoa?

Atera zaitez Espainiatik, eta ez zaizu batere axolako.

Aurkibidea

Haserrearen aurka	9
Eskuetan izan genuena	15
Belaunaldi bat pikutara	18
Ezer ez eskatu.	20
Parekotasunak	23
Aitorpen aroa	25
Mendizalearen ametsa	31
Zentzuaren kontsentsua	32
Biluztasunaren apologia	34
1. ARO BERRIA?	39
Dekretuz	45
Gobernuaren ardura.	53
Pongamos que hablo de Madrid.	62
2. BOTEREAZ	71
Boterearen egiturarik gorena	76
Zer da naturala?	84
Estatuaren ezaugarriak	91
Legea	98
Master class bat Gipuzkoako Aldundian.	103
Ordaintzaile txarra	109
3. HISTORIA GIDA TURISTIKOETAN	115
Hartos de España.	126
Mapa zahar baten portreta	134
Sherlock Holmes Eskozian	141

John Huston Dublinen	147
Irlandatik atera gabe.	149
Hamar minuturo irain bat	152
4. EZ ZAITZATELA ENGAINA.	157
Iruzurraren historia euskalduna	162
Bada nor Espainian?.	167
Gutako bat.	173
Paristik Munichera.	183
5. PRO LIBERTATE PATRIA GENS LIBERA STATE.	193
Claim of liberty and independence	199
Independentziaren lehen bandoa	204
Pais Vasco eta Pays Basqueren artean	212
Lehendakariaren gutuna.	218
6. ESTRATEGIAK ETA TAKTIKAK	227
Erabakitzekeo eskuburdinak	232
Irautea irabaztea al da?	238
Idea politikoen laborategia	246
Independentziaren estilo liburua	255
7. EURO NEWS-EKO ALBISTEA	263
Hiru bider ukatutakoa	268
Dependente izan nahi duenik bada?.	279
Dinamita semantikoa.	285
Arrainak partituretan bilduak.	291